

43. ARTIKULUA – BORONDATEZKO AURREIKUSPENENKO ENTITATEA

Aurreko hitzarmenetako 43. Artikuluan osatutako Lan Batzordeak egindako lanen ondorioz, berau hitzarmena sinatu duten hainbat erakundeek osaturik, sektoreko langileak “GEROA” Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundean sartzea adostu du bi milako urtarilaren lehen egunetik aurrera.

Hitzarmen honen sinatzaileek, , langileen Estatutuko 83.3 artikuluan aintzat hartzen den moduan, “gai jakin bati buruzko akordioaren bidez”GEROA B.G.A.E.ri langileek eta enpresek egin beharreko aportazioak ezarri dituzte.

Aportazioak ondokoak izango dira:

2003ko urtarilaren 1etik aurrera langilearen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrerako kotizazio-oinarriaren %1,50, %0,75 langilearen kargura izango da eta beste %0,75 enpresaren kargura

2004ko urtarilaren 1etik aurrera langilearen Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrerako kotizazio-oinarriaren %2,50, %1,25 langilearen kargura izango da eta beste %1,25 enpresaren kargura.

Enpresak ekarpen bateratuak egingo ditu; hortaz, langilearen kargurako ehunekoa dagokion soldataren nominatik kenduko da.

Gipuzkoako eraikin eta lokalen garbiketa sektoreko enpresek eta langileek Geroa Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeari egin beharreko ekarpenei buruzko akordioa sinatzearen akta.

Alde batetik MANUEL M. LAGO ANDRÉS, ASPEL (garbiketa enpresen lanbide elkarte) garbiketa sektoreko ordezkari gisa, langileen estatutuaren arabera, egoitza Madrilgo Alvarez de Castro kaleko 41. leian duen, eta bestetik, EDURNE IRIONDO ODRIOZOLA eta DOLORES ABAL IGLESIAS, ELA sindikatuko ordezkari %46,97ko ordezkariarekin, OLATZ AROCENA ISASA, LAB sindikatuko ordezkari %12,12rekin, LARRAITZ ZUBELDIA ICIAR eta SUSANA FRUTOS MARCOS, ESK sindikatuko ordezkari %11,11ko ordezkariarekin, MIKEL TELLETXEA AIZPURU, JESUS PEREZ PEREZ eta MARIA JESUS MANTEROLA MIRAGOYA, CCOO sindikatuko ordezkari %15,66rekin, eta EULALIA FERNANDEZ MEDINA eta ESTHER PETISCO BURGERA UGT sindikatuko ordezkariak %13,64ko ordezkariarekin, solaskide moduan bildu dira eta ondoko erabaki dute:

- 1.- Garbiketaren Hitzarmenak bi urteko iraupena izango du. (2003 eta 2004 urteak).
- 2.- Bi urteko iraupenaren urte bakoitzeko hazkundera ihazko KPI gei puntu bat izango da.
- 3.- 2003. urtean GEROAri zuzenduriko aportazioa %1,5 izango da eta 2004. urtean %2,5.
- 4.- Ondoko gaietan akordio hauek hartzen dira: baimenak, dietak, erretiro sariak – kontratazioa – ordu sindikalen metatzea – batzarreko orduak berdintasun batzordea. Akordio hauek akordio honen gehigarrian jasotzen dira.